

AuzoEkin Tolosa (2025)

1 Eremua: LANDA-EREMUA



Lekua:

Udaletxeko Pleno Aretoa

Data:

2025eko urriaren 14a, asteartea 18:00-20:00

Parte hartzaileak:

- **Auzokideak:** 24 pertsona
 - 8 emakume
 - 16 gizon
- **Udal teknikariak:** Garikoitz Lekuona, Gobernantza saileko teknikaria
- **Dinamizazio taldea:** Garoa Gartzandia eta Oihan Martirena (Aise kooperatiba)

Sarrera:

AuzoEkin Tolosako Udalak sustatutako udal-estrategia bat da, auzoen garapen integrala eta orekatua bultzatu nahi duena, herritarren parte-hartze prozesu egituratu, inklusibo eta kolaboratzaile baten bidez. Proiektuak aldaketa metodologiko esanguratsua planteatzen du tokiko gobernantzan, Auzoetako Mahaia pixkanaka eredu zabalago eta sistematikoago batez ordezkatzuz, gogoeta kolektiboa, diagnostiko partekatua eta eremuen araberrako estrategien formulazioa bultzatuko dituen.

Prozesua lau fase nagusietan egituratuta dago: diseinu parte-hartzailea (0 fasea), beharren diagnostikoa (1 fasea), formulazio estrategikoa (2 fasea) eta inplementazioa eta jarraipena (3 fasea). Fase horietan, lurralde analisirako tresnak eta parte hartzeko metodologiak uztartzen dira, eta herritarrak nahiz udalerriko eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalak inplikatzeko dira.

Herritarren parte-hartzera irekia den saio hau 2. fasearen barruan kokatzen da, elkarrekin plangintza estrategikoaren formulazioa egiteko bidean. Planifikazio horrek datoen 5 urteetan zonalderako udal-politikak bideratzen lagunduko du.

Helburua:

Herritarrei diagnosi parte-hartzailearen emaitza nagusiak ezagutzera ematea eta hausnarketarako eta proposamenetarako gune kolektibo bat irekitzea, eremuaren garapen-estrategiaren parte izan daitezkeen erronkak, ideiak eta ekintzak jasoz.

Saioaren garapena:

Garikoitz Lekuona, udal gobernantza teknikariak hasiera eman zion saioari, dinamizazio taldea aurkeztuz eta prozesua, fasea eta helburuak kokatuz. Jarraian, Osoigok eta Ikertaldekin eremuan egindako diagnostikoaren emaitza nagusiak azaldu zituen, eta elkarriketarako tarte zabaldutako zalantzak eta galderak argitzeko.

Partehartzaileen artean, Monteskué auzoko bi kidek parte hartu zuten, hasieran dukekin galdetu zuten ea beraiek ere prozesu honen eta talde honen parte izan zitezkeen. Baietz erantzun zitzaizkien, noski, saioa irekia baita.

Landa eremuko bizilagunek, diagnostikoa paperean eduki nahi dute eta haien auzoetan zabaldutako edota aurkezteko aukera ere eskatu zuten. Diagnostikoa dio etxebizitzaren jabetza dutela gehienek landa eremuan eta honek ekonomikoki arintasuna ematen diela. Honen aurrean pertsona batzuek erreakzionatu egin zuten, esanez landa eremuko etxe edota baserriak mantentzeko karga handia suposatzen dutela nahiz eta ez eduki hipotekarik. Lurrak mantentzeko ere ekonomia eskatzen duela azpimarratu dute.

60.000 euroko aurrekontua landa eremu guztiarentzat ere oso murrizta ikusten zuten saioan parte hartzen ari ziren kideek eta hori nola banatuko duten ere ez jakiteak, kezka suposatzen die. Udal teknikariaren aldetik azaldu zen berriz ere, aurrekontu horretan ekintza batzuk bideratuko direla, plana 5 urteetara egin nahi dela eta Udalaren beste aurrekontuetan interbentzio handiagoak ere sartu edo kontenplatu daitezkeela.

Gazteak ere gerturatu ziren saio honetara eta adin tartearen begiratu aniztasuna erakusten du eremu honek. Jatorri anitzeko begiratu ordea, taldea homogeneoa genuen eta soilik beste komunitate bateko jatorria zuen emakume bat gerturatu zen. Parte hartzen ari ziren landa eremuko kide denak bat ez zirela euskaldunak dira.

Saioaren bukaeran gogora arazi zitzaizkien erabaki.tolosa.eus plataforma dutela edozein proposamen berri aurkeztu ahal izateko.

Bost talde egin ziren partehartzaileekin eta lan talde bakoitzak Agenda Urbanoko markoaren arabeko paneletan lan egiten ari ziren. Errazleek noizean behin panelak aldatzen zitzaizkien horrela talde bakoitzak panel ezberdinen inguruan lan egiten eta elkarriketa edukiz.

Saioaren amaieran, parte-hartzea eskertu zen, saioan zehar izandako sentsazioak labur partekatzeko gonbitarekin batera. Parte-hartzaileei ere agurra eman zitzaien, elkarriketekin jarraitzea eta erabaki plataformaren bidez proposamenak ekartzen jarraitzea animatuz.

Emaizak:

- Landa Eremuko 24 auzokideek 1. faseko diagnostikoaren laburpena jaso dute.
- 50 proposamen berri jaso dira saio honetan, diagnostikoaren prozesuaren jasotakoez gain.

Proposamenak

AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIOANIZTASUNA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE1.1	Mendi bideak garbitu eta mantendu	3. saioan jasota
AE1.2	Urkizurekin batera landa bideak garbitzea	3. saioan jasota

AE2. HIRI-EREDUA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE2.1	Olarrain: tren zuriko baranda margotu eta konpondu	3. saioan jasota
AE2.2	Urkizu elkarteko ur hornidura konpondu	3. saioan jasota
AE2.3	Etxe bizitza plana inguruarekiko errespetagarriak	3. saioan jasota
AE2.4	Fibra optikoa	3. saioan jasota
AE2.5	Gas naturala	3. saioan jasota
AE2.6	Auzoetako kaskoak urbanizatzea: aparkamenduak, argiak, seinleak	3. saioan jasota
AE2.7	Aldaba aparkalekua atondu	3. saioan jasota
AE2.8	Sorospen egoertako hobekuntzak, ambulanziaz, suhiltzaileak	3. saioan jasota
AE2.9	Auzo txiki, fosa septika	3. saioan jasota
AE2.10	Argiztapen gehiago auzo txikin eta behar den guneeetan.	3. saioan jasota
AE2.11	Zona publikoen garbitasuna jarraitua (ez urtean bitan) basurak jaso	3. saioan jasota
AE2.12	Auzo txikia, ur beltzak kanalizatu	3. saioan jasota
AE2.13	Parkea jarri eta gero zaindu	3. saioan jasota
AE2.14	Oinarrizko azpiegituretan lanak: saneamendu, ur hornidura eta argiteria	3. saioan jasota

AE3. ALDAKETA KLIMATIKOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE3.1	Komunitate energetikoak espazio amankomunetan	3. saioan jasota
AE3.2	Energia eraginkorra berriztagarria	3. saioan jasota
AE3.3		

AE4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE4.1	Urkizu tabernaren kudeaketa/tabernari irtenbidea eman	3. saioan jasota
AE4.2	Ekoizpen ereduaren inguruko lanketa egin auzoetan	3. saioan jasota

AE5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE5.1	Ibilbideen garbiketa. Bide zaharren garbiketa	3. saioan jasota
AE5.2	Autobusa erdigunera, frekuentzia gehiago, hiribus, aldaba, auzo txiki	3. saioan jasota
AE5.3	Auzo txikitik, tolosako erdigunera bidea atondu	3. saioan jasota
AE5.4	Herri bideak garbitzea	3. saioan jasota
AE5.5	Ugane eta aldaba arteko bide sarea berreskuratzea	3. saioan jasota
AE5.6	Taxi zerbitzua, ordutegiak hobetu. Auzo txiki, aldaba	3. saioan jasota
AE5.7	Bisitariak taxi zerbitzua erabiltzea	3. saioan jasota
AE5.8	Olarraingo bide gorria egin, aritzabaltza-bentaundi Olarrain bide gorriarekin bat egin	3. saioan jasota
AE5.9	Pista eta karreteren desbrozea	3. saioan jasota
AE5.10	Garraio publikoa hobetzea	3. saioan jasota
AE5.11	Olarrain-Otsarain tartean pertsonen transizioa bermatu	3. saioan jasota

AE6. GIZARTE-KOHESIOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE6.1	Pertsona helduen formakuntza (laguntza, gidaritza)	3. saioan jasota
AE6.2	Auzolana bultzatzeko, sustatzeko edo bideratzeko baliabideak	3. saioan jasota
AE6.3	Tolosako landa auzoetako sarea sortu (auzo guztiek osatzen dutena)	3. saioan jasota
AE6.4	Jatorri ezberdinen arteko pertsonen elkar ezagutza sustatzea	3. saioan jasota
AE6.5	Ikastaroak ekintza kulturalak	3. saioan jasota
AE6.6	Auzolanak egiteko laguntza ekonomikoa	3. saioan jasota

AE7. EKOIZPEN EREDUAK ETA HIRI-EKONOMIA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE7.1		
AE7.2		

AE8. ETXEBIZITZA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE8.1	Udalak lurak erosi ditzala etxeak egiteko prezio duinetan	3. saioan jasota
AE8.2	Landa etxebizitzan plan integral bat garatzea, hiri plangintzarekin koordinatua	3. saioan jasota
AE8.3	Laguntzak dauden eraikinetan, elkarte eta etxeetan	3. saioan jasota
AE8.4	Hirigintzako araudia landa auzoetako behar eta errealitateari egokitzea	3. saioan jasota
AE8.5	Etxebizitzan prezio duinak/publikoa	3. saioan jasota
AE8.6	Ingurumenarekin bat eraiki daitezela	3. saioan jasota
AE8.7	Irisgarritasuna Etxebizitzan	3. saioan jasota

AE9. TRANTSIZIO DIGITALA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
	Teknologia auzoetara bermatzea (gela digitala, arbela digitala)	3. saioan jasota
AE9.2	Wifi publikoa bermatua	3. saioan jasota
AE9.3	Hiriguneak eskaintzen dituen zerbitzuak teknologiaren bidez auzoetara gerturatu	3. saioan jasota

AE10. TRESNAK, GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE10.	Lan administratiboetan burokrazia arintzea, laguntzea eta hobetzea	3. saioan jasota
AE10.2	Udalarekin harreman zuzena izatea: bilerak tartekatzea auzo eta udaletxearen tartean	3. saioan jasota
AE10.3	Proposamena, ibilbidea eta egoera. (jakin proposamen bakoitzak zein ibilbide eta egoeratan dagoen)	3. saioan jasota